steilas

Heziketa Bereziko Hezitzaileak

2022ko azaroa

- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak
- Fisioterapeutak
- Okupazio Terapeutak
- Zeinu Hizkuntzako Interpreteak
- Transkriptoreak
- Gizarte Langileak

steilas

www.steilas.eus

LAN BALDINTZAK ARAUTZEN DITUZTEN DOKUMENTUAK

Lan Hitzarmena

Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen 2003ko hitzarmen kolektiboa

Ikasturte hasierako jarraibideak

Urtero, ikasturte hasieran argitaratzen dituzte

steilas

Aurkibidea

Sarrera 4

Hasteko, oinarrizko gako batzuk 5

- Zabalik mantentzen diren Heziketa Bereziko Hezitzaileen zerrendak
- Birbaremazioa

Kolektiboak 9

- Hezkuntza Laguntzako Espezialistak
- Fisioterapeutak, Zeinu Hizkuntzako Interpreteak, Okupazio Terapeutak, Transkriptoreak eta Gizarte Langileak

Langileak 13

Lizentziak, baimenak, eszedentziak 14

- Odol-ahaidetasunaren organigrama
- Senideen gaixotasun larriagatiko edo heriotzagatiko lizentzia
- Beste batzuk

Gurasotasun lizentzia eta + ... 17

Hainbat gai 22

Urteroko prozesuak 24

- Urteroko prosezuen taula
- Prest_Gara, Birbaremazioa, Hizkuntza Eskakizunak
- Formakuntza funtsa, Gizarte funtsa, IRALE, Lekualdatze-lehiaketa
- Lanaldi partzialeko bitarteko ordezkapen-kontratuari uko egitea, Esleipenak, Erretiro partziala errelebo kontratuarekin

Lan osasuna 29

- Lan istripuak, nola jokatu

Kontaktuak 30

Intereseko QRak 31

Kaixo, lankide,

Ireki berri duzun eskuliburu honek, langileoi sarritan suertatzen zaizkigun zalantzak argitzea eta lan munduan hasi berri denari gako batzuk ematea ditu helburu, besteak beste.

Laburpen bat da, beraz, informazio osagarria behar izanez gero, Lan Hitzarmena begiratzea eta txertatu ditugun QR kodeez baliatzea gomendatzen dizugu.

Lagungarri izango zaizulakoan,

STEILAS sindikatuko Lan-legepeko
irakasle eta hezitzaileak

Oharra: Dokumentu honetako datak, jarraibideak, zehaztapenak... aurreko deialdietan oinarrituta daude. Beraz, orientagarriak dira eta aldaketak jasan ditzazkete.

LAN HITZARMEN BERRIA ORAIN!

STEILAS sindikatuko web guneak

Orokorra

EAE publikoa laboralak

Afilia zaitez!

Zabalik mantentzen diren Heziketa Bereziko Hezitzaileen zerrendak

Kategoria	Titulazioa
Hezkuntza Laguntzako Espezialistak	Gizarteratzeko edo Haur Hezkuntzako goi-mailako teknikaria, edo horien baliokideak.
Fisioterapeutak	Fisioterapian diplomatua edo graduatua. Kontratazioaren unean elkargokide izatea *(estar colegiado)*.
Zeinu Hizkuntzako Interpreteak	Zeinu mintzairaren interpreteko goi mailako teknikaria edo Komunikazio-bitartekotzako goi mailako teknikaria.
Okupazio Terapeutak	Terapia Okupazionaleko diplomatua edo graduatua.

Beharrezko Hizkuntza Eskakizuna

Guztietan HLEA edo goragokoa eskatzen da, baliokideak hauek direlarik:

Izena emateko GIDA

HLEA: Lan-legepeko hezitzaileei zuzendutako HE1 eta HE2 Hizkuntza Eskakizunen arteko maila (B2 eta C1en artekoa). Zehaztapenak aurrerago.

HAEEko 3. HE (IVAP).

HABEko 3. maila eta C1 maila.

Osakidetzako 3. HE.

Ertzaintzako 2. HE.

Hezkuntzako 2. HE.

Izena emateko ohar garrantzitsuak

EGA.

Euskaltzaindiaren D titulua.

Labayru Institutuaren 3.maila (1982-09-19a baino lehenago eman bada).

Hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Ziurtagiria edo 5.maila (RD 47/1992 ikasketa-plana).

Euskal Autonomia Erkidegoko Hizkuntza-eskola ofizialetako Gaitasun Maila (C1) edo Hizkuntza-eskola ofizialetako beste batzuk, C1 mailaren arabera.

Eskatutako hizkuntza eskakizuna egiaztatzeari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko HLEA, EGA eta HEOko eta HABEko ziurtagiriak ez dira entregatu beharko; prozesu honetan parte hartzeak, Hezkuntza Sailari datu horiek kontsultatzeko baimena ematea dakar.

Eskaera

Eskaera online egiten da Hezigunea webgunetik.

Gida

Hezkuntzako webgunean eta 5.orriko QRan.

Dokumentazioa

Baldintza gisa eskatzen diren tituluak bakarrik entregatu behar dira.

Eskaeraren ordena eta egoeraren kontsulta

Birbaremazio prozesua gauzatu arte, ordezkogaiak ez dira sartuko zerrenda orokorrean. Birbaremazio prozesuan merezimenduen baremoaren arabera ordenatuko dira eta berdinketa egon ezkero, urtero zozketa bidez ateratzen den hizki bat aplikatuz gauzatzen da berdinketa hauste hori.

Behin izen-ematea baliozkotutakoan, ordezkogaiak Ordezkagunean parte hartzeko aukera izango du.

Birbaremazioa

Aukerak aldatzeko eta dokumentazioa entregatzeko GIDA

Ohar garrantzitsuak

Zer da?

Zerrendetan dauden izangaien merituak eguneratzen dituen prozesua da. Hau da, zerrendak eguneratzeko egiten den prozesu bat.

Noiz gauzatzen da?

2021-2022 ikasturtetik, azaroa aldera gauzatzen da eta irailaren 1etik abuztuaren 31ra arteko merituak hartzen dira kontuan.

Nola gauzatzen da?

Prozesua telematikoki burutzen da Hezigunea web orriaren bidez.

Zer aldaketa egin daitezke birbaremazio prozesuan?

- Zerbitzuak eman nahi diren lurralde historikoak.
- Lurralde historiko bakoitzean lan egin nahi den lanaldi mota.
- Irakasteko hizkuntza-eskakizuna.
- Zerrendaren batean baja ematea.
- Lan-egoera.
- Lan-esperientzia aurkeztea.

Merituak

Lan-esperientziari dagozkion merituak baino ez dira zenbatzen; bai Hezkuntza Sailaren menpeko ikastetxeetan, bai baimendutako beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan sortutakoak ere.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren menpe dauden ikastetxeetan sortutako lan esperientzia; 1 puntu / 30 lan egun.

Baimendutako beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan; 0,5 puntu / 30 lan egun.

Zenbaketa 30 laneguneka egiten denez, birbaremazio prozesu batean egun solteak geratzen badira zenbatu gabe, hurrengo birbaremazio prozesuetarako gordetzen dira; hau da, ondorengo birbaremazio prozesu batean 30 lanegun pilatzean zenbatuko dira.

Jardun partzialek jardun osoek bezala konputatzen dute.

Puntu berdinak edota lan eginiko egun solte kopuru berdina dituzten langileen arteko berdinketa apurtzeko, urtero, zozketa baten bidez ateratako hizki bat aplikatuz gauzatzen da.

Baimendutako beste ikastetxe publiko edo pribatu batzuetan lortutako lan-esperientzia egiaztatzeko aurkeztu beharreko agiriak:

- Egindako lan mota zehazten duen lan kontratua; lan-kontratua aurkeztu ezin duenak ikastetxeko zuzendaritzak emandako ziurtagiria aurkeztuko du.
- Lan-bizitza.
- NANaren kopia.

Lanerako prest egotearen ondorioak, ikasturte hasierako esleipen telematikorako

Lanerako prest egoeran (*disponible*) jarriz gero, lanpostu bat ofizioz esleitzeko arriskua dago ikasturte hasierako esleipen-prozesuan.

Esleipen horiei ezin izango zaie uko egin, eta, lanpostua hartu ezean, esleipenduna hautagaien zerrendatik kanpo geratuko da.

Ukoa, arrazoia ezin aurreikusizko egoeren ondoriozkoa bada, eskabideak aurkezteko epea hasi baino hiru egun lehenagotik lanpostuaz jabetu arte egin bada eta alegatzen duenak borondatez egindako ekintza baten ondorio ez bada soilik onartuko da.

Ikasturte osorako uko egitearen lan-egoera

Ikastetxe publikoetan, gutxienez, hiru urteko zerbitzu-denbora egiaztatuta izanez gero, ikasturte osorako uko egitearen egoeran (*renuncia por curso completo*) jartzeko aukera dago dagokion laukia markatuz. Kasu honetan, ez da inolako eskaintzarik jasoko ikasturtean zehar.

Egoera honetan bi urte gehiago eman ahal izango dira, eta, hurrengo bi birbarematzeetan lanerako prest egoera eskatuz gero, egiaztatuta zegoen zerbitzu-denbora berreskuratuko da.

Hezkuntza Laguntzako Espezialistak

Lanaldia	
Ikasturtean gehienezko orduak	1.480 ordu
Astean gehienezko orduak	37 ordu eta 30 min
Astean gehienezko arreta zuzena	30 ordu
Astean material prestaketa eta koordinazioa	2 ordu eta 30 min
Bazkaltzeko denbora	1 ordu

Kontuan izan taulak lanaldi osoari egiten diola erreferentzia eta lanaldi partzialen orduen konputua, proportzionalki egiten dela.

Ordutegia: ikastetxeko ikaslegoaren sarrera-irteera ordutegiarekin bat egin behar du.

Lanaldi partzialak: lanaldia jarraian egin behar da, hasteko eta bukatzeko orduen tartean ezin da hutsunerik egon (*12. Batzorde Parekidea, 2006ko uztailaren 14an*).

Berritzegunearekin koordinazioak: material prestaketarako denboraren barruan ikasturtean zehar banatutako lau saiotarako denbora gordeko da (lehenengoa irailean eta azkena ekainean).

Klaustroak: zuzendaritzak hezitzailearen parte-hartzea ahalbidetuko du, baina langilearentzat borondatezkoa izango da. Klaustrokidea ez izanik, ez dago boto eskubiderik.

Norberaren bazkarirako denbora: langile guztiek norberaren bazkarirako denbora bermatuta izango dute (12etatik 15ak bitarte disfrutatuko da).

Jantokiko menua: langileak jantokiko zerbitzuan lan egiten badu (jangela/patioa), menua dohainik dagokio eta jantoki zerbitzuan lan egiten ez badu, ez dagokio menurik.

Bi ikastetxe ezberdinetan lan egiten bada: egutegia asteko lanaldiaren dedikazio handiena ematen duen ikastetxearena izango da *(Hezkuntza Laguntzako Espezialistentzako jarraibideak)*.

Eskolaz kanpoko jarduerak (*"extraescolares"*): parte hartzeko derrigortasunik ez dago (*Lanlegepeko Hezitzaile eta Irakasleen 52. Batzorde Parekideko akta*).

Gaua kanpoan igarotzea: gaua kanpoan igarotzea derrigorrezkoa ez bada ere, jardun osoan, ikasturteko orduen zenbaketarako egun eta erdi kontatuko da.

Lanaldiaren murrizketa: lanaldia murrizten denean, dagokion murrizketa lanaldi efektiboari egin behar zaio. Hau da, murrizketa ez zaio aplikatuko balizko 37,5 orduko lanaldiari, langileak egiten duen lanaldiari baizik.

Ejeak eta intentsitateak: artatzen diren ikasleak eta hauekiko esku-hartze ejeak eta intentsitateak HPB-en mapan jasota egon behar dira. Langileak, ikastetxean, informazio hori eskatzeko eskubidea izango du.

Kolektiboa	Ejea	Intentsitatea
Hezkuntza Laguntzako Espezialista	300.6	**a.** Aldizkakoa (Noizbehinkakoa edo krisi uneetakoa) **b.** Mugatua (1-6 ordu) **c.** Luzea (7-15 ordu) **d.** Orokorra (16-25 ordu)
Jantokia **e** hizkiaz adierazten da		
Garraioa **f** hizkiaz adierazten da		

Hedatze proiektua: proiektu hau daukaten ikastetxeetako lanpostuak hartzeko ez dago derrigortasunik ikasturte hasierako esleipenean, baina lanpostu hori behin onartuz gero, parte hartzea derrigorrezkoa da (curriculuma finkatzeko jardueretan bakarrik). Hedatze proiektua 17:00ak baino beranduago ezingo da amaitu (arreta zuzeneko asteko 30 orduak errespetatuko dira).

Garraioa: garraioa egiten denean, lanaldia ikastetxean hasteko eskubidea dago. Ikastetxetik ikasleak garraioa hartzen duen geltokiraino egindako desplazamenduaren denbora konputatu egingo da, baita ondoren zentrora ikaslearekin egindako desplazamendua ere. Jardunaren bukaeran, kontrako ibilbidea ere konputatuko da. Kontuan izan ordutegian konputatzen den denbora, praktikan bete egin behar dela. Ikasle batek, garraio zerbitzuan hezitzailearen eskuhartzea jasoko du, baldin eta ikasle horri autonomia programa bat egin bazaio. Programa hori denboran mugatua izango da eta ebaluazioaren menpe egongo da.

Zerbitzuagatiko desplazamenduak: ez da derrigorrezkoa kotxe propioa erabiltzea. Garraio publikoa erabiltzeko eskubidea dago. Gainera, Hezkuntza Sailak, zerbitzuagatiko desplazamenduak ordaindu egiten ditu.

Hezkuntzako web orrian > Langileak > Lan ekonomi erregimena > Hirugarrenaren datuen alta/aldaketa

Gero, hilabetero, bidai gastuen likidazioa egin behar da:

Hezkuntzako web orrian > Langileak > Lan ekonomi erregimena > Bidai gastuen likidazioa

Fisioterapeutak, Zeinu Hizkuntzako Interpreteak, Okupazio Terapeutak, Transkriptoreak eta Gizarte Langileak

Lanaldia		
Ikasturtean gehienezko orduak	1.462 ordu	
Astean gehienezko orduak	30 ordu	
Astean gehienezko arreta zuzena	23 ordu	
Egutegia	Erreferentziazko zentrokoa izango da; hau da, asteko lanaldiaren ehuneko handiena ematen dena	
Eguneko jarduna non hasi	Fisioterapeutak	Ikasleekin arreta zuzena hasten duten ikastetxean
	Okupazio Terapeutak	Eguneko jarduna hasten duten ikastetxean, Berritzegunean edo material-biltegian
	Zeinu Hizkuntzako Interpreteak	Interpretazioa hasi edo bukatzen duten ikastetxean

Kontuan izan taulak lanaldi osoari egiten diola erreferentzia eta lanaldi partzialen orduen konputua, proportzionalki egiten dela.

Lanaldi partzialak: lanaldia jarraian egin behar da, hasteko eta bukatzeko orduen tartean ezin da hutsunerik egon (*12. Batzorde Parekidea, 2006ko uztailaren 14an*).

Ejeak eta intentsitateak: artatzen diren ikasleak eta hauekiko esku-hartze ejeak eta intentsitateak HPB-en mapan jasota egon behar dira. Langileak, ikastetxean, informazio hori eskatzeko eskubidea izango du.

Kolektiboa	Ejea	Intentsitatea
Zeinu Hizkuntzako Interpretea	300.5	**a.** Aldizkakoa (Noizbehinkakoa edo krisi uneetakoa) **b.** Mugatua (1-6 ordu) **c.** Luzea (7-15 ordu) **d.** Orokorra (16-25 ordu)
Fisioterapeuta	300.7	**a.** Aldizkakoa (Noizbehinkakoa edo krisi uneetakoa) **b.** Mugatua (1-6 ordu)
Okupazio Terapeuta	300.8	

Zerbitzuagatiko desplazamenduak: ez da derrigorrezkoa kotxe propioa erabiltzea. Garraio publikoa erabiltzeko eskubidea dago. Gainera, Hezkuntza Sailak, zerbitzuagatiko desplazamenduak ordaindu egiten ditu.

Hezkuntzako web orrian > Langileak > Lan ekonomi erregimena > Hirugarrenaren datuen alta/aldaketa

Gero, hilabetero, bidai gastuen likidazioa egin behar da:

Hezkuntzako web orrian > Langileak > Lan ekonomi erregimena > Bidai gastuen likidazioa

Berritzegunea izango da erreferentziazko zentroa indemnizazio hauek kalkulatzeko. Araban aldiz, bakoitzaren jatorrizko zentroa izango da. Lehen edo azken desplazamenduetan, langilearen bizilekutik distantzia txikiagoa badago Berritzegunetik baino (Araban erreferentzia zentrotik), langilearen bizilekutik kontatuko dira kilometroak.

2 kilometro baino gutxiagoko desplazamenduetan ez da indemnizaziorik emango.

Asteko programazioan zerbitzuak ikastetxe bakarrean ematen diren egunak badaude, bi egunetako desplazamenduak ordainduko dira gehienez ere (*2014ko urriaren 24ko Parekidean adostutako akordioa*).



Finkoak

→ Oposizio bidez (LEP/EPE).

→ Berritzegunez aldatzeko: lekualdatze lehiaketa.

→ Ikastetxea aukeratzeko: Ikastetxeen esleipenak.

Mugagabe ez finkoak

→ Sententzia bidez.

→ Ikastetxea aukeratzeko: ikastetxeen esleipenak.

→ Lanpostua Berritzegune bati lotuta.

→ Iraupena: oposizio bidez (LEP), lekualdatze lehiaketa bidez edo berriz lanera itzultzen den finko batek lanpostu hori bete arte.

LEP arteko kontratu mugagabedunak / Bakantedunak

→ Ikasturte hasierako esleipen prozesuaren bitartez edo SMS bidez.

→ Ikastetxea aukeratzeko: ikastetxeen esleipenak.

→ Lanpostua Berritzegune bati lotuta.

→ Iraupena: oposizio bidez (LEP), lekualdatze lehiaketa bidez edo berriz lanera itzultzen den finko batek lanpostu hori bete arte.

Ordezkoak

→ Ordezkagunearen bitartez.

→ Iraupena: lanpostuaren titularra itzuli arte.

Odol-ahaidetasunaren organigrama



Senideen gaixotasun larriagatiko edo heriotzagatiko lizentzia

Taula

Heriotza			
Senide mota	Gertaera non		
	Herri berdinean	Herri ezberdinean, baina 150 km baino gutxiago	150 km edo gehiago
Ezkontidea / Bikotekidea / Seme-alabak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun + 2 egun natural
Gurasoak / Aita-amaginarrebak	3 lanegun	5 lanegun	5 lanegun
2. mailako senideak	3 lanegun	4 lanegun	4 lanegun + egun natural 1
Maila urrunagoko senideak elkarrekin biziz gero	3 lanegun	3 lanegun	3 lanegun + 2 egun natural

Gaixotasun larria, ospitalizazioa edo etxean atseden hartzera behartzen duen ospitalizazio gabeko ebakuntza			
Senide mota	Gertaera non		
	Herri berdinean	Herri ezberdinean, baina 150 km baino gutxiago	150 km edo gehiago
Ezkontidea / Bikotekidea / Seme-alabak	5 lanegun	5 lanegun	5 lanegun + 2 egun natural
Gurasoak / Aita-amaginarrebak	3 lanegun	5 lanegun	5 lanegun
2. mailako senideak	2 lanegun	4 lanegun	4 lanegun
Maila urrunagoko senideak elkarrekin biziz gero	2 lanegun	2 lanegun	2 lanegun + 2 egun natural

Ebakuntza: mediku ziurtagiriaz egiaztatu beharko da.

Etxean atseden hartzea: ebakuntza mediku ziurtagiria + atsedena justifikatzen duen mediku txostena.

Herri ezberdina: langilearen bizilekua ez dena.

Ingresoagatiko baimena senidea **ingresatuta dagoen bitartean** hartuko da eta ez da zertan jarraian hartu behar.

Beste batzuk

Lizentziak	Art.	Nork	Zehaztapenak	€
Norbere ezkontza / bizikidetza egonkorra*	23	FBMO	20 egun natural, ezkontza eguna barne. Berriz ere disfrutatzeko 6 urte igaro behar dira (persona ezberdin batekin).	Bai
2. mailara arteko senideen ezkontza*	23	FBMO	Ezkontza eguna (+ 3 egun natural, 150 km-ra baino urrunago bada).	Bai
Nahitaezko betebeharrak	25	FBMO	Behar den denbora, betiere lanorduz kanpo egiterik ez badago.	Bai
Etxebizitzaz aldatzea*	26	FBMO	2 lanegun, erroldatu eta 15 egun naturaleko epean hartzeko.	Bai

Baimenak	Art.	Nork	Zehaztapenak	€
Adingabekoak (12 urtera arte), ezgaituak edo 2. mailara arteko senideak zaintzeko / Norberaren gaixotasunagatik	29	FBMO	Herena edo erdiaren murrizketa.	Bai %
Gaixotasun kroniko edo mugitzeko arazoak dituzten 2. mailara arteko senideak zaintzeko	30	FBM	50 ordu arteko baimena ikasturte bakoitzeko. Gehienez 2 ordu egunean, lanaldi hasieran edo bukaeran (zentruko zuzendaritzaren esku).	Bai
Ikasketak edota praktikak egitea*	31	FBM Kasuz kasu aztertuta	Ikasturte luzaezin bat, ordainsariei uko eginez.	Ez
Azterketa ofizialetara aurkeztea*	32	FBMO	Egun natural bat (+2 egun 150 km-ra baino urrunago bada).	Bai
Kontsulta, tratamendu eta azterketa medikoa	33	FBMO	Behar den denbora, betiere lanorduz kanpo egiterik ez badago. Erditzea prestatzeko, astean gehienez 4 ordu.	Bai
Norberaren eginkizunak*	36	FBMO	Gehienez 4 hilabete, 2 urtero. Urtebeteko antzinatasuna zerbitzu aktiboan eta indarrean dagoen ikasturtean 6 hilabete pilatuta edo bakantea.	Ez

F: Finkoak **B:** Bakantedunak **M:** Mugagabe ez finkoak **O:** Langile ordezkoak

* Eskaera 7 egun natural lehenago egin behar da.

Lizentziak eta baimenak (hezkuntzako web gunea)

Lizentziak eta baimenak (hezkuntza berezia)

Eszedentziak	Art.	Nork	Zehaztapenak	€
Eszedentziak	39	FBM	Nahitaezkoa Lanpostua gordetzeko eta antzinatasuna zenbatzeko eskubidea: a) Kargu publikoren bat betetzeko. b) Eginkizun sindikalak betetzeko. c) Askatasuna galdu duenean zigortzeko epai irmorik jasotzen ez den bitartean.	Ez
		F	Borondatezkoa* Gutxienez urtebetekoa eta gehienez bost urtekoa. Urtebeteko antzinatasuna eta aurreko 4 urtetan eskatu ez izana.	Ez
		FBMO	Seme-alabak zaintzeko* 3 urterako gehienez. Kotizazioa: 2 urte.	Ez
		FBMO	Senideak zaintzeko* 2. mailara arteko senideak zaintzeko. Gehienez urte beterako. Kotizazioa: urte 1. Eszedentzia irailean hasiko da.	Ez
Eszedentzia berezia*	54	F	6 hilabete gutxienez eta urte bat gehienez. Gutxienez bi urteko antzinatasuna eta aurreko bi urteetan eszedentziarik hartu ez izana.	Ez

Beste batzuk	Art.	Nork	Zehaztapenak	€
Lanaldiaren borondatezko murrizketa*	53	F	Herena edo erdiaren murrizketa. Urtebeterako gutxienez.	Bai %
Urte sabatikoa	56	F	4 ikasturtez lanean. 5. ikasturtean baimena.	% 84
Aldi baterako etetea / *Suspensión transitoria*		O	Zerbitzuen aldi baterako etetea. Adingabeak 3 urte bete arte. Nahi beste aldiz hartu eta utzi. Barematzeko, lan bizitza.	Ez

F: Finkoak **B:** Bakantedunak **M:** Mugagabe ez finkoak
O: Langile ordezkoak

***** Eskaera 7 egun natural lehenago egin behar da.

Haurdunaldia eta edoskitzea babestea laneko arriskuen kontra

Haurdun dauden emakumezko langileek, ikasleekin kontaktu zuzena dutelako, arrisku espezifikoa dute agente biologiko batzuekiko *(Errubeola, Elgorria, Parotiditisa, Barizela-Zoster, Parvovirus B19 eta Citomegalovirus)*.

Hori dela eta, prebentzio-zerbitzuak "serologia" bat egingo die haurdun dauden langile guztiei, eta ezezkoa ateratzen bada, beren lanpostutik erretiratuko dituzte. Haurdunaldiaren egoeraren jakinarazpena borondatezkoa bada ere langilearentzat, neurri horiek martxan jartzeko beharrezkoa izango da enpresari haurdunaldiaren berri ahalik eta lasterren ematea.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Eskabide orria:

  Hezkuntzako webgunean > Hezkuntza > Langileak > Lan Arriksuen Prebentzio Zerbitzua > Amatasuna babestea > Haurdunaldia edo edoskitze naturala jakinaraztea > Eskabide orri ofiziala

- Osasun Zerbitzu Publikoaren txosten medikoa (familia-medikuarena edo ginekologoarena), haurdunaldia edo edoskitze naturala egiaztatzen duena. Txostena gutun-azal itxi batean entregatuko da, bertan idatzitako "KONFIDENTZIALA" hitzarekin.

Dokumentazioa honako helbide honetara bidaliko da, Lurralde-Ordezkaritzen bitartez (Hezkuntza Erregistroa edo Zuzenean):

Laneko Arriskuen Prebentzio Zerbitzuko arduradunari /
Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila
Langileriaren Kudeaketako Zuzendaritza /
Laneko Arriskuen Prebentziorako Zerbitzua

Donostia kalea, 1 • 01010 Vitoria-Gasteiz

Informazio osagarria

Eskabide orria

Haurdunaldia eta baja

Haurdun dagoen emakumeak lanean aritzeko arazoak izanez gero

Baja **Mutuatik**.	Baja **Gizarte Segurantzatik**.
Haurdunaldi ona, baina lanpostu kaltegarria.	Haurdunaldian arazoak edo haurdunaldi arriskutsua.
Delegaritzako prebentzio zerbitzutik tramitatzen da Mutualiatik lanpostuaren azterketa egingo da, prozesuak 3-4 aste iraungo ditu eta bitartean ezin da Osakidetzatik bajarik hartu. Lortuz gero, % 100a kobratuko da. Ez dago inspekziorik.	Osakidetzatik baja hartuz gero, familiako medikuak ematen du, "gaixotasun arrunta" gisa aitortzen da. % 100a kobratuko da. Inspekzioak egon daitezke.
Mutuatik bajan dagoela ordezkapena bukatzen zaio: Ez dago lan kontraturik, hortaz prestazio hori jasotzeari utziko zaio. Langabeziako prestazioa abian jarri behar da (eskubidea badu).	Gizarte Segurantzatik bajan egonda ordezkapena bukatzen bada: Ez dago lan kontraturik, baina bajak irauten duen bitartean, prestazio bat jasoko da.

Haurra jaio da!

Bajan egon bagara, alta hartu behar dugu. Ordezkaritzan ondorengoak entregatu:

- Alta medikuaren partea.
- Jaiotze agiria (erietxean ematen duten dokumentu horia).
- Gurasotasun baimenerako eskaera orria / norberak sortutako idazkia datak azalduz (aurreabisua):

Gogoratu, hau, Ordezkaritzarekiko egin behar den kudeaketa da; honetaz gain, Gizarte Segurantzan ere baimenaren kudeaketa egin behar da. !!!

Gurasotasun lizentzia

<table>
<tr><th>Zatiak</th><th>Asteak</th><th colspan="3">Nola hartu asteak</th></tr>
<tr><td>Nahitaezkoa</td><td>6 aste</td><td colspan="3">Haurra jaiotzen denetik edo adopzioa, adopzio aurretiko zaintza edo harrera eratzeko erabaki judiziala ematen den egunetik.
Etenik gabe.
Zati hau amaitu aurretik egin behar da edoskitze aldiaren eskaera eta behin eskaera eginda, ezin da aldaketarik egin. !!!</td></tr>
<tr><td rowspan="5">Borondatezkoa</td><td rowspan="5">10 aste</td><td>Etenik gabe</td><td colspan="2">Zatika</td></tr>
<tr><td rowspan="4">Nahitaezko asteak amaitu eta jarraian.
Etenik gabe.
Horrela hartzera derrigortuta:
Gurasoetako batek lanik egiten ez badu / Adopzio, zaintza edo harreran hartutako haurra 12 hilabetetik gorakoa bada.</td><td colspan="2">Aste osoka hartuko da.
Haurrak 12 hilabete bete aurretik.</td></tr>
<tr><td colspan="2">Noiz hartuko dituzte?</td></tr>
<tr><td>Ama biologikoak</td><td>Beste gurasoak</td></tr>
<tr><td>Nahitaezko zatia amaitu eta nahi duenean.</td><td>- Ama biologikoaren nahitaezko 6 asteak eta gero.
- Ama biologikoaren baimen guztia (18 asteak) amaitu eta gero.
- Ama biologikoak edoskitze metatua eskatuko balu, hau bukatu eta gero.</td></tr>
<tr><td>Hobetutakoa</td><td>2 aste</td><td colspan="3">Disfrutatzeko baldintza: haurra jaiotzen den egunean kontratupean egotea.
Borondatezko asteak amaitu eta jarraian.
Etenik gabe.
Disfrutatzerakoan, kontratua amaituz gero: hurrengo kontratu bat lortutakoan, jarraituko da disfrutatzen, 2 asteak agortu arte.</td></tr>
<tr><td colspan="4">• Jaiotze, adopzio edo harrera anizkoitza denean, 2 aste gehiago haur bakoitzeko.
• Adingabeak desgaitasunen bat izan ezkero, 2 aste gehiago.
• Atzerrian adoptatuz gero, gurasoek haurraren jaioterrira joan behar badute, baimena, adopzioa gauzatzen duen ebazpena eman baino lau aste lehenago ere hasi ahal izango da (Hitzarmeneko 22. Artikulua).
• Baimenak denbora partzialean hartu ahal izango dira baina, ezingo da lanaldia aldatu behin baimena disfrutatzen hasi eta gero.</td></tr>
</table>

Konziliazio baimenak parekatzea

STEILASen legeak baliatutako Ama Biologikoa terminoa erabili badugu ere, errealitatea kontzeptuak jasotzen duen esanahia baino askoz ere zabalagoa dela ulertzen dugu.

Zati bakoitza hartzeko, 15 laneguneko aurreabisuarekin egin behar da eskaera. Bi modutara egin daiteke:

- Hartuko den aldi bakoitzaren aurretik.
- Hartuko diren aldi guztiekin eskaera bakarra.

Borondatezko zatia asteka/zatika hartzen denean, ordainketa ez da egingo aste guztiak agortu arte. !!!

Baimena kobratzeko eskubidea

16 asteko baimena kobratzeko eskubidea izateko egoerak:

Kontratupean egotea haurra jaio den egunean:

- Nahiz eta kontratuaren iraupena 16 aste baino laburragoa izan.
- Nahiz eta haurra jaio aurretik bajan egon.
- Nahiz eta haurra jaio aurretik bajan egon eta lan kontratua bukatu gurasotasun baimeneko 16 aste horiek agortu aurretik.

Langabezia kobratzen egotea haurra jaiotzen den egunean.

18 asteko baimena kobratzeko eskubidea izateko egoerak:

Kontratupean egotea umea jaio den egunean:

- Kontratuaren iraupena 16 aste baino luzeagoa izatea (haurra jaio aurretik bajan egon edo ez).
- Hezkuntza Sailarekin lan-harremana izatea (beste kontratu bat lortuz).

Edoskitzea

Jaiotako haur bakoitzeko egunean ordu bat, urtebete izan arte.

Proportzionalki luzatuko da erditze, adopzio edo harrera anizkoitza denean.

Edoskitze aldiaren eskaera NAHITAEZKO 6 asteak amaitu aurretik egin behar da (metatuta hartu edo ez, berdin du) eta behin eskaera eginda, ezin da aldaketarik egin. !!!

Aldi baterako ezintasunak ez du edoskitzea eteten.

Bi modutara har daiteke:

Metatu gabe	Metatuta
Egunean ordu beteko ausentzia. Sarrera edo irteerarekin koinziduz. 30 minutuko bi zatitan banatu daiteke. Lizentzia osoa bukatutakoan edo nahitaezko zatia amaitutakoan disfrutatuko da.	24 lanegun gutxi gora behera (lanaldi osoan). Finkoek, bakantedunek, mugagabe ez finkoek eta amaiera data duten ordezkapen luzeak betetzen ari diren bitartekoek. Kalkulua ondo egiteko, haurrak 12 hilabete bete bitartean hartuko diren lizentzia, baimen, hartu gabeko opor eta eszedentziak jakinarazi behar dira. !!!

Gero zer?

Edoskitze METATUA eta gero → Lanera itzuli
Lanaldia murriztu ½ eta 1/3 (*Hitzarmeneko 29 eta 53. artikuluak*)

Edoskitze EZ METATUA eta gero (Haurrak 12 hilabete beteta) → Eszedentzia (*Hitzarmeneko 39. artikulua*)
Aldi baterako etetea / *Suspensión transitoria* (Ordezko langileak)

Jabetza egitea

Jabetza egitea edo *toma de posesión* deritzona, eskainitako lanpostua onartzen denaren baieztapena da. Hau da, kontratua hasten den egunean, nahiz eta hau fisikoki une horretan ez sinatu, lanpostura joatea eta norberaren datuak jasotzen dituen dokumentua betetzea.

Prozesu hau kontratu guztien hasieran gauzatu behar da.

Gaixotasun arrunta dela eta aldi baterako ezintasun egoeran dagoen langileak ezin du jabetzarik egin. Ondorioz, egoera horretan dagoen langileak alta artu behar du jabetza egin ahal izateko; nahiz eta egun horretarako bakarrik izan.

Jabetza egitetik salbuetsita dauden egoerak

> Lan istripuagatik, lanbide-gaixotasunagatik edo haurra izateagatik aldi baterako ezintasun egoeran egotea.

> Haurdunaldian arriskua izateagatik edo arriskuko haurdunaldia izateagatik aldi baterako ezintasun egoeran egotea.

> Gurasotasun baimenean egotea.

> Adopzioagatik edo harreragatik aldi baterako ezintasunean egotea.

> Seme-alabak zaintzeko edo irakasleen zerrendetan lan egiteko jardunaldi-etete iragankorrean *(Suspensión transitoria)* egotea.

Aurreko egoera horietan dauden ordezkogaiek ikasturtean zehar lanpostuan hasteko aukera izango dute, egoera hori eragin duen gertaera bukatu ondoren.

Eskainiko zaien ordezkapenaren iraunaldia zerrendetan puntuak egiteko baino ez zaie zenbatuko; zerbitzaldi horrek ez du eraginik izango antzinatasunean ez eta Gizarte Segurantzaren ondorioetarako ere, ez delako benetako zerbitzurik eman.

Aldi baterako ezintasun egoeran egonda kontratua amaitzen da. Zer gertatzen da?



Kontuan izan, hau horrela izan dadin, aldi baterako ezintasuna zuzenean ordaintzea *(pago directo de prestaciones)* eskatu behar dela, beti ere aurrez langabeziako prestazioa jasotzeko baldintzak bete badira.

Horretarako Gizarte Segurantzako webgunean dagokion inprimakia deskargatu eta Gizarte Segurantzaren Arreta eta Informazio Zentroan aurkeztu behar da.

Galdutako oporrak berreskuratzea

Erditzea, gaixotasuna edo istripua gertatzen badira, langileak galdutako abuztuko oporraldiaren egunak berreskuratzeko eskubidea izango du (gehienez 30 egun natural).

Egun horiek alta hartu eta jarraian disfrutatuko dira baldin eta langileak kontratupean jarraitzen badu. Kontratua moztu bazaio edo kontratupean ez badago, opor egun horiek ordaindu egingo zaizkio.

Norberaren eginkizunetarako baimena *(Asuntos propios)*

Ordaindu gabekoa da, baina Gizarte Segurantzan altan mantentzen denez, ez dago aldaketarik kotizazioan. Itzultzean, hartutako egunen diruaz gain, baimenaren denboraldi horretan Hezkuntza Sailak Gizarte Segurantzan langileagatik ordaindu duena ere deskontatzen da nominatik.

Bateraezintasunagatiko eszedentzia

Langile finkoentzat da. Baimen honek ez du suposatzen bere lanpostuaren erreserba, baina bai lanpostu batena.

Eszedentziaren arrazoia desagertu eta gero, langileak bere lanpostura berriro itzultzeko eskaera egin beharko du 30 egun naturaleko epean (*reingreso*-a eskatu).

Ordezkapenak sarritan egiten badira, langileak, ez du zertan *reingreso*-a eskatu beharrik. Sarritan gertatzen ez badira, eta langabezia eskatzeko asmoa baldin badu, *reingreso*-aren eskaerako agiria aurkeztu beharko du.

Nahiz eta *reingreso*-a eskatu, langilea ez da lanean hasiko irailera arte, baina lanpostua behin behineko langileek baino lehen aukeratuko du, finkoen esleipenean.

Eskaera, bai eszedentziarena bai bueltatzearena, Lakuako Harreman Sindikaleko Sailera bideratuko da. Nahi beste aldiz eska daiteke eszedentzia mota hau, ez dago mugarik.

Ikasturtean zehar SMS bidez eskaintzen diren bakanteak

Ikasturtean zehar sortutako bakanteak ez dira Ordezkagunea bidez esleituko, SMS bidez baizik. Interesdunak eskaera dagokion Ordezkaritzara bidaliko du e-mail bidez eta zerrendako hurrenkera zorrotz errespetatuz, lehen tokian dagoenari esleituko zaio.

Langile horrek ordura arte betetzen zuen lanpostua, hurrenkeraren arabera, dagokion ordezkoari eskainiko zaio.

	Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
Prest_Gara 2. Deialdia	Izen-emateak	B-B BB					Hasierako ebazpena					
Birbaremazioa			-Hasierako ebazpena - Elegiteak			B-B		BB		Gora jotzeko errekurtsoaren ondorengo BB		
Hizkuntza eskakizuna				Hasierako ebazpena	Izen-emateak		Atarikoa	Idatzizkoa	Ahozkoa			
Formakuntza funtsa				Ebazpena		- Hasierako ebazpena - Izen-emateak						
Gizarte funtsa						- Hasierako ebazpena - Izen-emateak				Ebazpena		
Irale Lanorduen barruko eta kanpoko ikastaroak							Hasierako ebazpena	Izen-emateak				
Prest_Gara 1. Deialdia							Hasierako ebazpena		Izen-emateak	Izen-emateak B-B BB		
Lekualdatze lehiaketa (2021) • 2022an ez da egin							-Hasierako ebazpena - Eskaerak	B-B	BB			
Lanaldi partzialeko bitarteko ordezkapen kontratuari uko egitea									- Hasierako ebazpena - Eskaerak B-B BB			
Mugitzeko aukera *(Autodesplazamendua)*									- Hasierako ebazpena - Eskaerak B-B BB			

B-B: Behin-behinekoak **BB:** Behin betikoak

Kontuan izan datak aurreko deialdietan oinarrituta daudela eta orientagarriak direla. !!!

			Iraila	Urria	Azaroa	Abendua	Urtarrila	Otsaila	Martxoa	Apirila	Maiatza	Ekaina	Uztaila	Abuztua
ESLEIPENAK	Ikastetxeen esleipena	Berritzegunera atxikita daudenak									- Hasierako ebazpena - Adostasun bilerak / prozesu telematikoak BB			
		Ordezkaritzara atxikita daudenak									Hasierako ebazpena BB: FISIO – OT			BB: ZHI
	Ikasturte hasierako esleipen telematikoa (COCU)	Hasierako ebazpena												
		Birbaremazio berezia Lurraldea, destinoa eta lanaldia aldatzea												
		Lan egoera eta hizkuntza-eskakizuna aldatzea												ZHI
		Eskaerak egiteko epea												ZHI
		BB ebazpena												

Erretiro partziala	
Urtekoa edo urteanitzekoa ikasturtea hasi ondoren	Erretiro partzialera sartzeko aurreikusitako data baino 2 hilabete lehenago Erretiro partzialak formalizatzeko azken eguna apirilaren 30a
Urteanitzekoa ikasturtearen hasierari lotuta	Ekainaren 3a baino lehen
Indarrean dauden erretiro partzialen modalitateak aldatzea	Ekainaren 3a baino lehen
Erretiro aurreratuaren eskaera	Uztailaren 1a baino lehen
Instrukzio hau 2023ko urtarrilaren 1a baino lehen gertatutako erretiro partzialaren eskaerei aplikatuko zaie.	

B-B: Behin-behinekoak **BB:** Behin betikoak

Kontuan izan datak aurreko deialdietan oinarrituta daudela eta orientagarriak direla. !!!

Prest_Gara

Zer da?

Hezkuntza Sailak unibertsitatez kanpoko irakasle eta hezitzaileen gaitasun profesionala garatzeko eskaintzen duen formakuntza programa.

Birbaremazioa

Zer da?

Zerrendetan dauden izangaien merituak birbarematzen dituen prozesua da. Hau da, zerrendak eguneratzeko egiten den prozesu bat.

Hizkuntza eskakizunak

Zer da?

Urtero irakasle eta hezkuntza-langileentzat Irakaskuntzako HE1, HE2 eta HLEA hizkuntza eskakizunak egiaztatzeko egiten diren azterketak dira.

Zer dira HE1, HE2 eta HLEA?

HE1: Euskara ikastetxean harreman-hizkuntza moduan (ikasleekin, gurasoekin, irakasleekin) erabiltzea bermatzen du baina maila hori ez da nahikoa euskara edo euskaraz irakatsi behar den lanpostuetarako. Europako Erreferentzia Markoaren B2 mailari dagokio.

HE2: Euskara, harreman-hizkuntza izateaz gain, lan-hizkuntza moduan ere erabiltzea bermatzen du, bereziki euskara edo euskaraz irakatsi behar den lanpostuetan. Europako Erreferentzia Markoaren C1 mailari dagokio.

HLEA: Heziketa Bereziko lan legepeko hezitzaileei zuzendutako HE1 eta HE2 hizkuntza eskakizunen arteko maila (B2 eta C1en artekoa).

Baldintzak

Izena emateko baldintza batzuk betetzea beharrezkoa da:

HE1: irakaslanerako edo hezkuntza-lanerako titulazioa izatea, eta Bigarren Hezkuntzarako Gaitzeko Masterra edo baliokidea.

HE2: 2020-2021 edo 2021-2022 ikasturteetan EAEko ikastetxe publiko edo pribatu baimendu batean lanean aritzea edota herri-ikastetxeen ordezkapen-zerrendetan egotea.

HLEA: Hezkuntza Bereziko lan-legepeko hezitzaileei eskatzen zaien titulazioa izatea.

Deialdi irekia eta deialdi itxia

Deialdi irekia eta deialdi itxia daude; **deialdi irekian** baldintzak betetzen dituen edonork eman ahal du izena eta **deialdi itxia** berriz, IRALE programan liberatuta dauden langileentzat izaten da soilik.

Formakuntza funtsa

Zer da?

Hezkuntza Sailak urtero diru kopuru bat ematen du, lan-legepeko irakasle eta hezitzaileen hobekuntza profesionalerako eta Hezkuntza Bereziarekin zerikusia duten hobekuntza ikastaroak finantzatzeko.

Gogoratu, deialdi bakoitzean aurreko urteko gastuak kitatzen direla eta beharrezko ordainagiriak aurkeztu behar direla. !!!

Gizarte funtsa

Zer da?

Eusko Jaurlaritzak ondorengo kontzeptuetarako ematen duen diru laguntza da:

> Ikusmenerako laguntza protesikoak (kristalak berriztatzea eta lentillak).

> Entzumenerako laguntza protesikoak (audifonoak).

> Laguntza protesiko ortopedikoak (plantillak, gerrikoak...).

> Laguntza odontologikoak (zorroak edo endodontziak).

> Tratamendu eta ebakuntza medikuetatik eratorritako laguntza protesikoak, osasun sistema publikoan barneratuta ez daudenak (ileordeak...).

> Tratamenduetarako laguntza (foniatria, psikologia...).

> Fisioterapia, osteopatia eta errehabilitazio tratamenduetarako laguntza.

Gogoratu, deialdi bakoitzean aurreko urteko gastuak kitatzen direla eta beharrezko ordainagiriak aurkeztu behar direla. !!!

IRALE

Zer da?

Langileak euskalduntzeko eta alfabetatzeko Hezkuntza Sailak eskaintzen duen ikastaro programa bat da eta bi modalitate daude:

Irakastordu barneko ikastaroak.

Irakastorduz kanpoko ikastaroak.

Lekualdatze-lehiaketa

Zer da?

Langile finkoei, ordezko langileek eta sententzia bidezko langile mugagabeek edo bakantedunek betetzen dituzten lanpostu hutsetara mugitzeko aukera ematen dien prozesua da.

Lanaldi partzialeko bitarteko ordezkapen-kontratuari uko egitea

Zer da?

Pertsona batek lanaldi partzialeko ordezkapenak egiteko bitarteko kontratu bat gutxienez urte batean etenik gabe izan badu, borondatez kontratu horri uko egiteko aukera izango du, ikasturte hasierako lanpostuak esleitzeko prozesuan parte hartzeko eta lanaldi osoko kontratuak aukeratu ahal izateko. Libre/lanerako prest gisa egon beharko da lanaldi osoko ordezkapenak egiteko ordezkogaien zerrendetan.

Esleipenak

Zer da?

Langileak hurrengo ikasturterako lanpostua eskuratzeko burutzen den prozesua da.

Langilearen izaeraren (finkoa, bakanteduna / mugagabe ez finkoa, ordezkoa) eta atxikipenaren (Berritzegunera edo Ordezkaritzara) arabera, prozesu desberdinak gauzatzen dira:

- Ikastetxeen esleipena
- Ikasturte hasierako esleipena (COCU)

Erretiro partziala errelebo kontratuarekin

Zer da?

Lan kontratu finkoa duten langileek, erretiro partziala har dezakete, eta beraien jarduera murriztu, ohiko erretiroa hartzeko legezko adina bete arte. Horren ondorioz, beste norbaiti txandakako kontratu bat egiten zaio, lanaldi murriztua osatzeko asmotan; txandakako kontratu honek ere, erretiro partzialaren iraupena izango du.

Zerbitzuak emateko modalitateak

Eskaera egitean, zerbitzuak emateko modalitate bat aukeratu beharko da:

> **Urteko prestazioa:** ikasturte osoan zehar edo urteko aldi batean metatu ahal dira zerbitzuak. Kasu bietan, errelebistari %50eko kontratu bat egingo zaio, eta lanaldia metatuz gero, errelebistak lehenengoz emango ditu zerbitzuak.

> **Urteanitzeko prestazioa:** langileak erretiro partzialera sartzen den datatik, behin betiko erretirora iritsi arte dagozkion lan orduak aldi bakar batean egingo ditu. Kasu honetan egoera desberdinak sor daitezke:

a) Ikasturte hasieran sortutakoa: errelebistari %100eko kontratua egingo zaio eta jubilatzear dagoen langileak zerbitzuak ematen dituen bitartean, beste lanpostu bat beteko du.

b) Ikasturtean zehar sortutakoak: lehenengo ikasturtean biek lan egingo dute, bakoitzari dagokion aldian eta biek %50eko kontratu bat izango dute. Bigarren ikasturtean (irailaren 1etik aurrera), errelebistari %100eko kontratua egingo zaio eta jubilatzear dagoen langileak zerbitzuak ematen dituen bitartean, beste lanpostu bat beteko du.

Lan istripuak, nola jokatu



Laneko istripua

Langilea lanean ari dela edo lanaren ondorioz jasan dezakeen edozein gorputz-lesio.

"In itinere" (laneko istripuen barruan)

Istriputzat jotzen da langileak lantokirako joan-etorrietan jasan dezakeena.

Gorabehera (inzidentzia)

Edozein jardueretan aritzean eman daitekeen edozein egoera; nahiz eta momentuan lesiorik ez eragin, baina lesioak eragin ditzakeena (Segurtasun laguntzaileari komunikatu eta erregistratzea garrantzitsua da).

STEILAS

Orokorrak

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa
Manuel Iradier 40 01005 Gasteiz 945 14 11 04 araba@steilas.eus	Jose Maria Eskuza 1, 1 esk. 48013 Bilbo 944 10 02 98 bizkaia@steilas.eus	Basotxiki 30-34 atz. 20015 Donostia 943 46 60 00 gipuzkoa@steilas.eus	Joaquin Beunza 4-6, behea 31014 Iruñea 948 21 23 55 nafarroa@steilas.eus

Lan-legepeko irakasle eta hezitzaileak

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
Irati: ara_irati@steilas.eus	Odei: biz_odei@steilas.eus	Rebeka: gip_rebeka@steilas.eus
Izaro: ara_izaro@steilas.eus	Naiara: biz_naiara@steilas.eus	Rakel: gip_rakel@steilas.eus

BESTE BATZUK

Lurralde ordezkaritzak

Pertsonal ez irakaslea

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
945 01 72 18 945 01 72 59 arabaei@euskadi.eus	944 03 11 37 944 03 10 65 944 03 11 08 bizkaiaei@euskadi.eus	943 02 28 74 943 02 29 12 eigipuzkoa@euskadi.eus

Nominak

Araba	Bizkaia	Gipuzkoa
945 01 72 38 945 01 72 39 arabanom@euskadi.eus	944 03 11 39 944 03 11 40 bizkaianomina@euskadi.eus	943 02 28 78 943 02 28 76 nominagipuzkoa@euskadi.eus

Ordezkagunea	945 20 72 56	ordezkagunea@hezkuntza.net
Hezigunea	945 20 72 56	hezigunea@hezkuntza.net
Mutualia	902 54 02 50	

Sektoreak

EAE
Publikoa Irakasleak

EAE
Haurreskolak

EHU

EAE
Pribatua

Nafarroa
Publikoa

Nafarroa
0-3 zikloa

Nafarroa
Unibertsitatea

Arloak

Idazkaritza
Feminista

LGTBIQ+

Jendarte
Mugimendua

Lan Osasuna

Eilastasuna

Bitarteko langileen eta langile finkoen lan baldintzak ahalik eta gehien parekatu

LEPa gauzatu

Lan Hitzarmena berritu

Eros-ahalmena berreskuratu

Sexenioak kobratu

Lanpostuz mugitzeko aukerak zabaldu

Irakasleen eta Haurreskolak Partzuergoko zerrendetan hezitzaileon lan esperientzia puntuatu

Ordezkoen araudia sortu

Uda puntuatu eta kobratu

Gaixotasun profesionalak aitortu

Klaustrokide izaera onartu